



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2021ko ekainak 8**

**Vitoria-Gasteiz, 8 de junio de 2021**

## Segurtasuna

### JAURLARITZAK EUSKADIKO HAUTESKUNDE BATZORDEA BERRITU DU

- **Izendatu ditu Iñaki Subijana lehendakaria eta hamar batzordekideak**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu Euskadiko Hauteskunde Batzordea osatuko duten pertsonen izendapen berriak. Izendapen horiek EAEANko lehendakaritzan izandako aldaketak eragin ditu, eta hemendik aurrera, beraz, Euskadiko Hauteskunde Batzordeko lehendakaria Iñaki Subijana izango da.

Horrez gainera, EAEANko Gobernu Salak bost batzordekide izendatu ditu: Garbiñe Biurrun, Juan Alberto Fernández, Ana Isabel Rodrigo, Francisco de Borja Iriarte, eta Jose Luis Asenjo.

Azkenik, Gobernu Kontseiluak katedratiko, zuzenbideko, politika-zientzietako eta soziologiako irakasle titular hauek edo prestigio aitortuko legelari hauek ere izendatu ditu batzordekide: Ainhoa Lasa, Manuel Salinero, Iker Urbina, Ricardo Sáenz eta Fidel Ignacio Uriarte.

## Ekonomia eta Ogasuna

### 2022KO EAE-KO AURREKONTUEK INBERTSIO-PLAN HANDIA BARNE HARTUKO DUTE, EKONOMIA SUSPERTZEKO ETA ERALDATZEKO

- **2023ra arte inbertsio publikoa maximizatzeko eskatzen duen abagunea dago, aurrekaririk gabea**

Gobernu Kontseiluak, gaur, 2022ko EAEko aurrekontu orokorrak prestatzeko aurrekontu-jarraibideak onartu ditu, ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko asmoz. Horretarako, inbertsio-plan handia diseinatu eta abiaraziko da, datozen urteotarako apustu handiak sustatuko dituen eta hiru trantsizio handiei erabakitasunez eta bermez heldu ahal izateko aukera emango duena: trantsizio teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta soziala eta osasun-arlokoa; azken hori erronka demografikoak markatzen du.

2022ko aurrekontuek Covid-19aren ondoriozko krisi-egoerari eta ondorio ekonomiko eta sozialei egin behar diete aurre, eta gobernu-ekintzaren helburu nagusiei erantzun behar diete. Hasiera-hasieratik, politika ekonomikoaren erantzuna irmoa izan da, ondorio ekonomikoak arintzeko, aprobetxatuz Europako Batzordeak zerga-politika hedakorra bultzatzea erabaki duela, Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula orokorra aplikatuz. Horrek aukera ematen du aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta zor publikoaren arloan bete beharreko baldintzak aldi baterako desbideratzeko, 2023ra arte, eta, aldi berean, berreskurapenerako salbuespenezko ekimen bat abiarazteko, Next Generation delakoa.

“Aurrekaririk gabeko 2023a izango da; horretarako, inbertsio publikoa maximizatu beharko da eta, horrela, baimendutako mugak estutu eta eskuragarri dauden baliabide guztiak erabili”, esan du Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasuneko Sailburuak. Hala, salbuespenezko egoerak, zerga-arauen etenarekin, gastu-araua berriro abian egon aurretik inbertsio-plan horri berehala heltzera bultzatzen du; beraz, “inbertsio publikoa 2022ko aurrekontuaren ezaugarria da”.

Horrekin batera, zeharkako ardatz izaten jarraituko du genero-ikuspegi globalak, pasa den legealditik sustatzen denak. Horren bidez, aurrekontuek genero-ikuspegi integrala dute, eta, haren bidez, genero-berdintasuna lortzeko ekimen esplizituak finantzatzea helburu izateaz gainera, politiken eta horien tresnen analisisian ere badago presente.

Bi alderdi horiek sendotzeko –inbertsioa eta genero-berdintasuna–, Euskadiko sektore publikoko sailen, erakundeen eta entitateen inpaktu-txostenak prestatu beharko dira, aurrekontuen proiektua zehaztu aurretik; hura urriaren 26an onartuko da Gobernu Kontseiluan.

## 2020-2022 Euskadiko ekonomia

Udatik izan diren kutsapen-olatuaren ondorioz, atzeratu egin da Covid-19aren krisialdiaren irteera, bai inguruneko herrialdeetan bai Euskadiko bertako ekonomian. Testuinguru horretan, Euskadiko ekonomiak urrats garrantzitsua eman du krisialditik irteteko prozesuan, eta, lehen hiruhilekoan, dagoeneko errebote esanguratsua antzematen da argitaratu diren martxoko datuetan; datu horiek hazkuntza handia erakusten dute bigarren hiruhilekorako, batez ere industrian.

EUSTATen kontu ekonomikoek pasa den astean erakutsi bezala, Euskadiko ekonomiak, 2021eko lehen hiru hiletan, hiruhilekoen arteko BPGd-aren aurrerapenak izan dituzten elkarren segidako hiru hiruhileko finkatzen ditu: 2020ko lehen hiruhilekoan % 15,5; 2020ko laugarren hiruhilekoan % 0,5, eta 2021eko lehen hiruhilekoan % 0,2.

### Euskadiko koadro makroekonomikoa, 2020-2022

	2020	2021	2022
<b>BPGd</b>	<b>-9,5</b>	<b>6,7</b>	<b>5,7</b>
Amaierako kontsumoa	-7,5	6,1	4,8
Etxeko kontsumoa	-10,7	6,9	5,8
Herri Administrazioetako kontsumoa	4,5	3,4	1,9
KFEG	-11,6	8,4	6,4
Barne-eskaria	-8,5	6,6	5,2
Kanpo-eskariaren ekarpena	-0,6	-0,1	0,3
BPGd nominala	-9,6	7,3	6,8
BPGd deflatorea	-0,1	0,6	1,1
Enplegua (lanpostuak)	-8,1	4,9	3,2
Pertsona okupatuak	-2,4	1,5	1,7
<b>Langabezia-tasa</b>	<b>10,5</b>	<b>10,1</b>	<b>9,5</b>

*Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza*

## Hezkuntza

### **350.000 EURO IKASLEEN GURASO ELKARTEEN FEDERAZIO ETA KONFEDERAZIOEN DIRULAGUNTZETARAKO**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez, unibertsitatez besteko ikasleen guraso elkarten Federazio eta Konfederazioentzako dirulaguntzetarako deia egiten duen Agindua onartu du. Deialdi honek 350.000 euroko diru kopurua du orotara.

Laguntzak Federazio eta Konfederazioek beharrezko dituzten azpiegitura gastuei aurre egiteko emango dira, elkarten laguntza eta aholkularitza gastuei aurre egiteko, gurasoen formakuntza jarduerak eragindako gastuei aurre egiteko, edo ikasleei zuzendurik elkarte horiek antolaturiko eskolaz kanpoko jardueretarako.

Formazio-jarduerei dagokienez, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren ildo estrategikoei lotutako prestakuntza sustatzen du deialdi honen bidez Hezkuntza Sailak, eta, bereziki, honako ildo hauek: hezkuntza-komunitatearen prestakuntza; hezkuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko arreta; elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren esparruan; material didaktikoak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia.

Deialdi honetan, familiei zuzendutako prestakuntzan gaitasun digitalak lehenestea gomendatzen da. Izan ere, familia batzuek zailtasunak dituzte edo izan dituzte seme-alabei laguntzeko, Covid-19k eragindako osasun-egoeran.

Ekintza hauek guztiek 2021an burutuak izan beharko dute. Gehienez jardueraren kostuaren %50 ordaindu ahal izango da laguntza hauen bidez.

## Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

### **EUSKO JAURLARITZAK ETXEBIZITZA HUTSEN DEKRETUA ONARTU DU, HUTSIK DAGOEN BIZITEGI-PARKEA MOBILIZATZEKO ETA ETXEBIZITZAREN FUNTZIO SOZIALA ZIURTATZEKO**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du, Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, etxebizitza hutsen dekretu berria, Euskadiko Etxebizitza Legeak garatzen duena, etxebizitzaren funtzio soziala bermatzeko. Dekretuak etxebizitza bat hutsik dagoela adierazteko prozedura ezartzen du, eta aurrerantzean etxebizitza horiek alokatzeko edo erosteko mobiliza daitezen sustatzeko zer neurri hartuko diren jasotzen du, besteak beste, bizitegi hutsetarako urteko kanona.

Araudi berriak honako hau ezartzen du etxebizitza huts gisa: bizitegi-erabilerarako erabil daitekeen egunetik aurrera bi urtean etengabe hutsik dagoena.

Dekretuak etxebizitza hutsik egotea zer egoeratan dagoen justifikatuta jasotzen du: bigarren bizitegitarako etxebizitzak; lanagatik, osasunagatik, mendekotasunagatik edo gizarte-larrialdiagatik aldi baterako etxez lekualdatzeko kasuak, eta gutxienez hiru hilez merkatuko prezioetan salmentan edo alokairuan eskainitako etxeak. Era berean, salbuetsita egongo dira administrazioari alokairu babesturako lagatako pisuak; migratzaileak, desgaituak edo genero-indarkeriaren biktimak hartzeko irabazi-asmorik gabeko entitateenak, eta birgaitzen ari direnak edo gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez dituztenak.

Udalak izango dira etxebizitzak hutsik daudela egiaztatzeko eta ikuskaritzak egiteko –eroldaren egiaztapenak eta elektrizitatearen, uraren eta gasaren kontsumo baxuegien identifikazioa– eskumena izango dutenak, baina, subsidiarioki, Eusko Jaurlaritzak ere egin ahalko ditu. Prozedurak entzunaldi-izapidea izango du, eta, hartan, hutsik dagoen etxebizitzaren aitortpena eten ahalko da, baldin eta hutsik egoteko baimenduta dagoen kasuren batean dagoela frogatzen bada, etxebizitza alokairu sozialeko programa publikoetan sartzen bada –besteak beste, Bizigune– edo bizitegia salmentan edo alokairuan merkatuko prezioetan jartzen bada.

#### **Urteko kanona**

Etxebizitza hutsik dagoela adierazten den kasuetan, udalak urteko kanona ezarriko du. Hura, urtean, 10 eurokoa izango da etxebizitzaren metro koadro bakoitzeko; kopuru hori % 10 areagotuko da hutsik dagoen urte bakoitzeko –hirukoiztu ahalko da, gehienez, hasierako zenbatekoa–. Aparteko kanon fiskala da, eta udalek bildu eta mantendu beharko dute denboran, harik eta hutsik dagoen etxebizitzaren ebazpena errebokatu arte. Kanon finalista da, eta haren kopuruak udalerriko etxebizitza-politiketara bideratuko dira.

#### **Nahitaezko alokairua egiaztatutako eskari eta premia duten arloetan**

Dekretuak, era berean, etxebizitza huts bat alokatzera behartzeko aukera ezartzen du; neurri hori Etxebizitza Legeak jasotzen du egoera horretan dauden eta tentsio handiko eremuetan dauden bizitegietarako. Horretarako, eremu edo

udalerrri horrek etxebizitzarako egiaztatutako eskaria eta premia dituelako adierazpenak egon beharko du aurretik.

Irudi horren izapidetzea hasteko, bi eskakizun bete behar dira: batetik, Etxebiden izena emanda dauden alokairuko 100 etxebizitza-eskatzaile egotea gutxienez eta haien eskariari erantzuteko parke publikoaren bidez aurreko bi urteetan aukerarik egon ezin izana, eta, bestetik, eremuan batez besteko alokairu-prezioak udalerriko batez besteko errenta baino % 10 handiagoak izatea, gutxienez. Eremu horiek Etxebizitzako sailburuaren agindu bidez jasoko dute adierazpena, udalek beraiek eskatuta edo ofizioz.

Nahitaezko alokairua etxebizitza huts gisa adierazpena jaso eta urtebetera hutsik jarraitzen duten etxebizitzetan aplikatu ahalko da, eta horrek etxebizitza, gehienez, bost urtez –beste bost urte luza daiteke– alokairu publikoan izatera behartuko du. Jabeek errenta bat jaso ahalko dute alokairuaren kontzeptuan edo, adostasunik ez badago, kalte-ordaina.

Dekretuak, halaber, muturreneko kasuetarako, nahitaezko desjabetzea ere aurreikusten du; urtebete baino gehiagoz hutsik dauden etxebizitzetan aplikatuko da, soilik etxebizitzaren eskaria dagoen eremuetan eta desjabetzea egokia bada haren erabilerarako. Desjabetzea ere eman ahal da bizitegi hori aurri-arriskuan dagoenean eta kontserbazio-araudiak betetzen ez dituenean, pertsonentzako segurtasunik eza eraginez. Kasu horietan, birgaitzea eta irabazi-asmorik gabeko elkarteen esku jartzea lehenetsiko da.

### **Etxebizitza Hutsen Erregistroa**

Etxebizitza Hutsen Erregistroa Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailean egongo da, eta etxebizitza hutsaren adierazpena dutenen segimendua egiteko balioko du. Elektronikoa izango da, eta Sailak berak eta autonomia-erkidegoko udalek eginiko adierazpenak jasoko ditu; haiek etxebizitza hutsaren adierazpenen eta errebokatzeen berri emateko betebeharra izango dute.

Etxebizitzak hutsik egoteari uzten badio, jabeek horren berri eman beharko diote administrazioari, adierazpena erreboka dezan. Bestalde, jabeak bere etxebizitza administrazioaren esku alokairu publikorako jartzen duen unean, prozedura artxibatuko da.

### **Etxebizitza hutsak mobilizatzeko laguntzak**

Etxebizitza hutsen jabeek Etxebizitza Sailak birgaitzeetarako dituen laguntzetara jo ahalko dute, eta alokairu babesturako erabiliko direnak egokitze obrek lehentasuna eta beste laguntza batzuk izango dituzte. Etxebizitza hutsak dituztenek bizitegi horiek aldi baterako Eusko Jaurlaritzari lagatzeko aukera izango dute. Bizigune programaren bidez, alokairu eskuragarria eskatzen duten pertsonen esku jarriko ditu, eta jabeek hilean errenta bat jasoko dute; errenta hori, hilean, 650 euro artekoa izan daiteke. Etxebizitza, kontratuaren amaieran, emandako baldintza beretan itzuliko da. Era berean, ASAP alokairurako bitartekaritza-programan sartu ahalko dira; haren bidez, berme-sistema bat eskaintzen da, aseguru-polizen bidez, ez-ordaintzeak, kalteak eta aholkularitza juridikoa ordaintzeko. Kasu horietan, jabeek hilean 775 euro arte jaso ahalko dituzte.

## Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

### **EUSKO JAURLARITZAK GARRAIOAREN SEKTOREAN TEKNOLOGIA BERRIAK ETA SEGURTASUNA EZARTZEKO LAGUNTZEN AGINDUA ONARTU DU**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren agindua onartu du; haren bidez, 2021. urterako salgaien eta bidaiarien errepidezko garraio publikoaren sektorean teknologia berrietako eta segurtasuneko sistemak ezartzeko laguntza-programa ezartzen da.

Laguntzen helburua da eraginkortasuna irabaztea floten eta segurtasunaren kudeaketan, garraio jasangarrirako bidean aurrera egiteko eta sektorea modernizatzeko. Kontrol- eta kudeaketa-zentro bati konektatuta dauden floten lokalizazio- eta kudeaketa-sistemen (GPSa edo antzekoa) ezarpenari emango zaizkio, segurtasun-elementuei, besteak beste artaziarena ez egiteko sistemei, istripuen erregistratzaileei, kamerei, talkak arintzeko teknologiei –esaterako sentsoreak eta radarrak–, larrialdi-deien sistemei edo erregaiaren kontsumoa murrizteko gidatze eraginkorra optimizatzeko sistemei.

Programak 113.000 euroko aurrekontua du (aurreko ekitaldian baino % 88 gehiago), eta azaroaren 30a baino lehen eginiko inbertsioak bultzatuko ditu. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laguntzen agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK MILIOI BAT EUROREKIN SUSTATUKO DU EUSKARAREN PRESENTZIA NAGUSIKI GAZTELANIAZKOAK DIREN HEDABIDEETAN

Gobernu Kontseiluak nagusiki gaztelania erabiltzen duten hedabideetan (eguneroko prentsan, edizio digitaletan, irratietan eta internet bidez albisteak ematen dituzten berri-agentzietan) euskararen erabilera areagotzeko dirulaguntzak onartu ditu gaur. Guztira milioi bat euro izango da era honetara banatuta:

- **Eguneroko prentsa eta egunkariak:** Guztira 900.000 euro erabiliko dira euskararen presentzia areagotzeko. 550.000 euro paperezko edizioetara bideratuko da eta beste 350.000 edizio digitaletara. Paperezko edizioek gutxienez 10 orrialde argitaratu beharko dituzte, astean, euskaraz eta digitalek egunero, gutxienez, euskaraz sei albiste kaleratu beharko dituzte.
- **Internet bidez albisteak euskaraz ematen dituzten berri-agentziak:** 50.000 euroko diru partida erabiliko da egunero gutxienez 12 albiste berri zabaltzen dituztenei laguntzeko.
- **Osorik euskaraz emititzen ez duten uhin bidezko irratia:** emisio orduetatik % 85 euskaraz dituzten irratiei laguntzeko 50.000 euro erabiliko dira. Eta euskarazko emisio orduak, astean, gutxienez, 25 izan beharko dira.

Interesa duten hedabideek deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hilabeteko epea izango dute eskaerak aurkezteko.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 700.000 EUROKO AURREKONTUA ONARTU DU EUSKAL KIROLARIEK 2021EKO NAZIOARTEKO KIROL LEHIAKETA OFIZIALETAN ETA EMAKUMEZKOEN LIGA ESTATALETAN PARTE HARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak 700.000 euroko diru partida bat onartu du gaur, iaz baino 260.000 euro gehiago, 2021ean egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan, nazioarteko esparrua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen kategoria absolutuko liga estataletan euskal kirolarien parte-hartzea sustatzeko. Aipatutako lehiaketa horiek goi-mailako kirola sustatzea izan behar dute helburutzat. Ez dute dirulaguntzarik jasoko partaidetzarako kirola sustatzera bideratuta dauden jarduerak (jolaserako, aisiarako eta osasunerako kirola), ezta selekzioek parte hartzen duten kirol lehiaketek ere.

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak COVID-ak eragindako kalteei aurre egiteko eta kirol erakundeei laguntzeko nahia du eta horregatik igo du aurten 260.000 euroan dirulaguntza hauetara bideratutako diru kopurua. Deialdi honetara bideratutako 700.000 euroak honela banatuko dira:

- 470.000 euro kirol-lehiaketa ofizialetan, nazioarteko esparrua eta izaera dutenetan eta kategoria absolutuan parte hartzeko diru laguntzetarako.
- 230.000 euro emakumezkoen liga estataletan parte hartzeko dirulaguntzak emateko.

Iaz guztira 29 kirol erakundeak jaso zuten laguntza, besteak beste, Araski Arabako Emakumeen Saskibaliari Elkarteak, Bera Bera Rugby taldeak, Gaztedik, Balonmano Zuazo Femeninok, Gernika Ke Saski Baloi-k, Landu Durangoko Emakumezko Txirrindulari Kirol Taldeak, Badaiotz Herri Kirol Taldeak edo Club Deportivo Leka-Enea Tenis de Mesa-k.

## Seguridad

### EL GOBIERNO RENUEVA LA JUNTA ELECTORAL DE EUSKADI

- **Nombra a Iñaki Subijana Presidente y sus diez vocalías**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la renovación de las personas que integran la Junta Electoral de Euskadi. Los nuevos nombramientos vienen derivados del cambio de presidencia del TSJPV de manera que, a partir de ahora, el Presidente de la Junta Electoral de Euskadi será Iñaki Subijana.

Además, la Sala de Gobierno del TSJPV ha designado cinco vocalías: Garbiñe Biurrun, Juan Alberto Fernández, Ana Isabel Rodrigo, Francisco de Borja Iriarte, y Jose Luis Asenjo.

Finalmente, en calidad de personas titulares de cátedras, profesorado titular de Derecho, Ciencias Polícicas, Sociología o juristas de reconocido prestigio, el Consejo de Gobierno ha nombrado cinco vocaías más: Ainhoa Lasa, Manuel Salinero, Iker Urbina, Ricardo Sáenz y Fidel Ignacio Uriarte.

## Economía y Hacienda

### LOS PRESUPUESTOS CAE DE 2022 INCLUIRÁN UN AMBICIOSO PLAN DE INVERSIONES PARA LA RECUPERACIÓN Y TRANSFORMACIÓN ECONÓMICA

- **Existe una ventana oportunidad sin precedentes que exige maximizar la inversión pública hasta 2023**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy las directrices presupuestarias para la elaboración de los Presupuestos generales de la CAE de 2022, con el foco puesto en la recuperación y la transformación económica, para lo que se va a diseñar y poner en marcha un ambicioso plan de inversiones que impulse las grandes apuestas para los próximos años y permita abordar con decisión y garantías las tres grandes transiciones: la transición tecnológica-digital, la energético-climática y la social y sanitaria, esta última marcada por el reto demográfico.

Los presupuestos de 2022 deben afrontar la situación de crisis derivada de la Covid-19 y sus consecuencias económicas y sociales, así como atender a los grandes objetivos de la acción de gobierno. Desde el primer momento, la respuesta de la política económica ha sido contundente para aliviar los efectos económicos, aprovechando que la Comisión Europea ha decidido impulsar una política fiscal expansiva aplicando la cláusula general de salvaguardia del Pacto de Estabilidad y Crecimiento, que permite una desviación temporal de los requisitos a cumplir en materia de estabilidad presupuestaria, regla de gasto y de deuda pública, hasta 2023 y poner en marcha a la vez una iniciativa excepcional para la recuperación como es Next Generation EU.

“Se trata de una ventana oportunidad sin precedentes que exige maximizar la inversión pública apurando los límites permitidos y empleando todos los recursos disponibles”, ha declarado el Consejero de Economía y Hacienda, Pedro Azpiazu. Así, la situación excepcional con la suspensión de las reglas fiscales empuja a acometer inmediatamente este plan de inversiones antes de que vuelva a operar la regla de gasto, por lo que “la inversión pública es la seña de identidad del presupuesto de 2022”.

Junto a ella, otro eje transversal seguirá siendo la perspectiva global de género, impulsada desde la pasada legislatura y mediante la cual los presupuestos adquieren una visión integral de género que no trata sólo de financiar iniciativas explícitas destinadas a lograr la igualdad de género, sino que ésta está presente en el análisis del conjunto de las políticas y sus instrumentos.

De cara a reforzar ambos aspectos –inversión e igualdad de género- se exigirá la elaboración de los informes de impacto de los distintos Departamentos, organismos y entidades del sector público vasco de forma previa a la definición

del proyecto de presupuestos, que será aprobado en Consejo de Gobierno el 26 de octubre.

### **Economía vasca 2020-2022**

Las diferentes olas de contagios que se han sucedido desde el verano han retrasado la salida de la crisis del Covid-19, tanto en los países del entorno como en la propia economía vasca. En ese contexto, la economía vasca ha dado un paso importante en el proceso de salida de la crisis, y dentro del primer trimestre se aprecia ya un rebote importante en los datos publicados correspondientes al mes de marzo, que anticipan un fuerte crecimiento para el segundo trimestre, sobre todo en industria.

Tal y como mostraron las Cuentas Económicas de EUSTAT la semana pasada, la economía vasca consolida en los tres primeros meses de 2021, tres trimestres consecutivos de avances del PIB intertrimestral: 15,5% tercer trimestre de 2020; 0,5% cuarto trimestre de 2020; y 0,2% primer trimestre de 2021.

### **Cuadro macroeconómico de Euskadi 2020-2022**

	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
<b>PIB</b>	<b>-9,5</b>	<b>6,7</b>	<b>5,7</b>
Consumo final	-7,5	6,1	4,8
Consumo hogares	-10,7	6,9	5,8
Consumo AAPP	4,5	3,4	1,9
FBC	-11,6	8,4	6,4
Demanda interna	-8,5	6,6	5,2
Aportación demanda externa	-0,6	-0,1	0,3
PIB nominal	-9,6	7,3	6,8
Deflactor PIB	-0,1	0,6	1,1
Empleo (puestos de trabajo)	-8,1	4,9	3,2
Personas ocupadas (PRA)	-2,4	1,5	1,7
<b>Tasa de paro</b>	<b>10,5</b>	<b>10,1</b>	<b>9,5</b>

*Fuente: Dirección de Economía y Planificación*

## Educación

**350.000 EUROS PARA AYUDAS A FEDERACIONES Y  
CONFEDERACIONES DE ENTIDADES ASOCIATIVAS DE PADRES Y  
MADRES DEL ALUMNADO**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas destinadas a las Federaciones y Confederaciones de entidades asociativas de padres y madres del alumnado de enseñanza no universitaria. Esta convocatoria de estas subvenciones cuenta con un importe de 350.000 euros.

Las ayudas se concederán para gastos de infraestructura necesarios para el funcionamiento de las Federaciones y Confederaciones, para gastos de actividades de apoyo y asesoramiento a las entidades asociativas, para gastos de actividades de formación de padres y madres, o para gastos de actividades complementarias y extraescolares organizadas por éstos y dirigidas al alumnado.

En relación a las actividades de formación, a través de esta convocatoria el Departamento de Educación promueve la formación vinculada a las líneas estratégicas del Plan de Mejora del Sistema Educativo, y en especial las siguientes líneas: Formación de la comunidad educadora; Educación inclusiva y atención a la diversidad; Bilingüismo en el marco de una educación plurilingüe; Materiales didácticos y Tecnologías de la Información y la Comunicación.

En esta convocatoria, se recomienda priorizar las competencias digitales en la formación dirigida a las familias, dado que algunas familias tienen o han tenido dificultades para ayudar a sus hijos e hijas, durante la situación sanitaria provocada por la Covid-19.

Todas las actividades subvencionables serán realizadas durante el año 2021. Como máximo, se sufragará mediante estas subvenciones el 50% del coste de las citadas actividades.

## Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

**EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL DECRETO DE VIVIENDA DESHABITADA PARA MOVILIZAR EL PARQUE RESIDENCIAL VACÍO Y ASEGURAR LA FUNCIÓN SOCIAL DE LA VIVIENDA**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde, a propuesta del consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, Iñaki Arriola, al nuevo decreto de vivienda deshabitada, que desarrolla la Ley vasca de Vivienda para garantizar la función social de la vivienda. El decreto establece el procedimiento para declarar deshabitada una vivienda y recoge las medidas que se adoptarán a partir de ahora para incentivar que estas sean movilizadas para su alquiler o compra, entre ellas el canon anual para residencias desocupadas.

La nueva normativa establece como vivienda deshabitada aquella, que se encuentre desocupada de forma continuada durante los dos años a partir del día siguiente desde que pueda ser utilizada para uso residencial.

El decreto incluye los supuestos en los que la desocupación está justificada: las viviendas de segunda residencia, los casos de traslado temporal de domicilio por trabajo, salud, dependencia o emergencia social y los hogares ofertados en venta o alquiler a precios de mercado durante un mínimo de tres meses. Asimismo, están exentos los pisos que se cedan a la administración para su alquiler protegido, los de entidades sin ánimo de lucro para acoger a personas migrantes, discapacitadas o víctimas de violencia de género y los que estén siendo rehabilitados o no cuenten con las condiciones mínimas de habitabilidad.

Los ayuntamientos serán los competentes para acreditar la desocupación de las viviendas y realizar las inspecciones -comprobaciones del padrón e identificación de consumos anormalmente bajos de electricidad, agua y gas-, aunque de manera subsidiaria también podrá hacerlo el Gobierno Vasco. El procedimiento contará con un trámite de audiencia en el que se podrá frenar la declaración de vivienda deshabitada probando los supuestos en los que está permitido que permanezca vacía, incorporando la vivienda a programas públicos de alquiler social como Bizigune o poniendo la residencia en venta o alquiler a precios de mercado.

### **Canon anual**

En los casos en los que la vivienda sea declarada deshabitada, el ayuntamiento impondrá el canon anual. Este será de 10 euros por cada metro cuadrado útil de la vivienda al año, una cifra que se incrementará un 10% por cada año de desocupación –con un máximo de tres veces el importe inicial-. Se tratará de un canon extra fiscal y corresponderá a los ayuntamientos recaudarlo y mantenerlo en el tiempo hasta que se revoque la resolución de vivienda deshabitada. Es un canon finalista cuyas cantidades serán destinadas a las políticas de vivienda del municipio.

### **Alquiler forzoso en áreas de acreditada demanda y necesidad**

El Decreto establece, así mismo, la posibilidad de instar el alquiler forzoso a una vivienda deshabitada, medida que recoge la Ley de Vivienda para las residencias en esta situación y que estén ubicadas en zonas tensionadas. Para ello es necesario que exista una declaración anterior de esa zona o municipio como área de acreditada demanda y necesidad de vivienda.

Para iniciar la tramitación de esta figura deben cumplirse dos requisitos, que haya al menos 100 demandantes de vivienda en alquiler inscritos en Etxebide cuyas peticiones no hayan podido ser atendidas en los dos años anteriores a través del parque público y que los precios medios de alquiler en la zona sea al menos un 10% superiores a la renta media de la localidad. Estas áreas serán declaradas mediante una orden del consejero de Vivienda a petición de los propios ayuntamientos o de oficio.

El alquiler forzoso se podrá efectuar en viviendas que se mantengan desocupadas transcurrido un año desde su declaración como vivienda deshabitada y obligará a tener por un máximo de cinco años –prorrogables otros cinco- la vivienda en alquiler público. Las personas propietarias podrán percibir una renta en concepto de alquiler o, en caso de que no haya acuerdo, una indemnización.

El decreto también prevé para los casos más extremos la expropiación forzosa, que se aplicará a viviendas deshabitadas por más de un año en zonas de acreditada demanda cuando la expropiación resulte adecuada para garantizar su uso o en casos en los que esa residencia esté en riesgo de ruina o incumpla las normativas de conservación y genere inseguridad para las personas. En estos casos, se priorizará su rehabilitación y puesta a disposición de asociaciones sin ánimo de lucro.

### **Registro de Viviendas Deshabitadas**

El Registro de Viviendas Deshabitadas se ubicará en el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco y servirá para hacer seguimiento de las viviendas declaradas deshabitadas. Será electrónico e incorporará las declaraciones realizadas tanto por el Departamento como por los ayuntamientos de la comunidad autónoma, que tendrán la obligación de informar de las declaraciones de vivienda deshabitada y de las revocaciones.

Si la vivienda deja de estar vacía, las personas propietarias deberán informar de ello a la administración para que revoque la declaración. Por otra parte, en el momento en que la persona propietaria ponga a disposición de la administración su vivienda para alquiler público, se archivará el procedimiento.

### **Ayudas para movilizar viviendas vacías**

Las personas propietarias de viviendas deshabitadas podrán acceder a las ayudas a la rehabilitación del Departamento de Vivienda y las obras para acondicionar aquellas que vayan a ser destinadas al alquiler protegido tendrán prioridad y ayudas adicionales. Y es que quienes posean domicilios vacíos tendrán la posibilidad de ceder temporalmente estas residencias al Gobierno Vasco. Este, a través del programa Bizigune, lo pondrá a disposición de personas que soliciten un alquiler asequible y las personas propietarias recibirán una renta mensual que puede alcanzar hasta 650 euros mensuales. La vivienda se devuelve al término del contrato en las condiciones en las que fue entregada. Asimismo, se podrán incorporar al programa de intermediación de alquiler ASAP, mediante el que se ofrece un sistema de garantías a través de pólizas de seguros para cubrir impagos, desperfectos y asistencia jurídica. En estos casos las rentas a percibir por los propietarios podrían llegar hasta 775 euros al mes.



## Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

### **EI GOBIERNO VASCO APRUEBA LA ORDEN DE AYUDAS PARA IMPLANTAR NUEVAS TECNOLOGÍAS Y SEGURIDAD EN EL SECTOR DEL TRANSPORTE**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la orden del consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes por la que se establece el programa de ayudas para implantar sistemas de nuevas tecnologías y de seguridad en el sector del transporte público de mercancías y personas viajeras por carretera para el año 2021.

Las ayudas tienen como objetivo ganar eficacia en la gestión de flotas y seguridad, con el fin de avanzar hacia el transporte sostenible, modernizando el sector. Se concederán a la implantación de sistemas de localización y gestión de flotas (GPS o similar) conectados a un centro de control y de gestión, a elementos de seguridad como sistemas antitijera, registradores de accidentes, cámaras, tecnologías para mitigar colisiones como sensores y radares, sistemas de llamada de emergencia o sistemas de optimización de la conducción eficiente para reducir el consumo de combustible.

El programa cuenta con un presupuesto de 113.000 euros (un 88% más que en el ejercicio anterior) y apoyará inversiones que sean realizadas antes del 30 de noviembre. El plazo de solicitudes estará abierto durante un mes desde el día siguiente a la publicación de la orden de ayudas en el Boletín Oficial del País Vasco.

## Cultura y Política Lingüística

### EL GOBIERNO VASCO PROMOVERÁ CON UN MILLÓN DE EUROS LA PRESENCIA DEL EUSKERA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN MAYORITARIAMENTE EN CASTELLANO

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, las subvenciones para incrementar el uso del euskera en los medios de comunicación que utilizan principalmente el castellano (prensa diaria, ediciones digitales, emisoras de radio y agencias de noticias por internet). El importe total será de un millón de euros distribuidos de la siguiente manera:

- **Prensa diaria, diarios**: en total se destinarán 900.000 euros para aumentar la presencia del euskera. 550.000 euros se destinarán a ediciones en papel y 350.000 a ediciones digitales. Las ediciones en papel deberán publicar un mínimo de 10 páginas semanales en euskera y las digitales deberán publicar al menos seis noticias diarias en euskera.
- **Agencias de noticias que también difunden noticias en euskera a través de Internet**: se destinará una partida de 50.000 euros para ayudar a quienes difundan al menos 12 noticias diarias.
- **Radios de onda que no emiten íntegramente en euskera**: se destinarán 50.000 euros a las emisoras que cuenten con el 85% de horas de emisión en euskera. Y tendrán que emitir, como mínimo 25 horas semanales en euskera.

Los medios interesados tendrán un mes, desde la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco, para presentar las solicitudes.

## Cultura y Política Lingüística

### **EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UN PRESUPUESTO DE 700.000 EUROS PARA LA PARTICIPACIÓN DE DEPORTISTAS VASCOS EN COMPETICIONES DEPORTIVAS INTERNACIONALES OFICIALES Y LIGAS ESTATALES FEMENINAS DE 2021**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una partida de 700.000 euros, 260.000 euros más que el año pasado, para fomentar la participación de los y las deportistas vascos en competiciones deportivas oficiales, de ámbito y carácter internacional, en categoría absoluta, y en ligas estatales de categoría absoluta femenina, que se celebrarán o iniciarán en 2021. Estas competiciones deben tener como objetivo el fomento del deporte de alto nivel. No serán objeto de subvención las actividades destinadas a la promoción del deporte de participación (recreativo, ocio y sanitario) ni las competiciones deportivas en las que participen selecciones.

El departamento de Cultura y Política Lingüística quiere ayudar a las entidades deportivas a hacer frente a los daños causados por el COVID y por ello ha aumentado en 260.000 euros la cantidad destinada a estas subvenciones. Los 700.000 euros destinados a esta convocatoria se distribuirán de la siguiente manera:

- 470.000 euros para subvencionar la participación en competiciones deportivas oficiales, de ámbito y carácter internacional y categoría absoluta.
- 230.000 euros para la subvencionar la participación en ligas estatales femeninas.

El año pasado recibieron la subvención un total de 29 entidades deportivas entre las que se encuentran, entre otras, Araski Arabako Emakumeen Saskibalioti Elkarte, Bera Bera Rugby taldea, Gaztedi, Balonmano Zuazo Femenino, Gernika Ke Saski Baloi, Landu Durangoko Emakumezko Txirrindulari Kirol Taldea, Badaiotz Herri Kirol Taldea o el Club Deportivo Leka-Enea Tenis de Mesa.